



OINARRIZKO BABES ETA SEGURTASUN NEURRIAK FAKULTATEAN: IKASGELAK ETA IRAKASKUNTZA-LABORATEGIAK

- COVID-19rekin lotutako sintomak izan ditzaketen ikasleak edo irakasleak ezingo dira Fakultatean sartu
- Sartu Fakultatera **maskara** jantzita.
- Fakultatean, une oro **eduki maskara jarrita, bai IKASGELAN, bai fakultatearen BARRUKO JOAN-ETORRIETAN.**
- Fakultatean, gorde une oro gutxienez 1,5 metroko **distantzia** pertsonen artean.
- Desinfektatu eskuak sarrera nagusietan kokatutako **gel hidroalkoholikoarekin.**
- Korridore eta eskaileretan, **ibili zure eskuinetik**, eta libre utzi ezkerreko aldea zirkulazioaren kontrako noranzkoan erabiltzeko.



FAKULTATEAREN BARRUAN

- **Lehenetsi** eskailerak erabiltzea, eta mantendu beste pertsonetikiko **segurtasun distantzia**.
- Fakultateko **korridore guztiak igarobideak izango dira soilik, eta ez bertan egoteko lekuak.**
- **Igogailuen erabilera** mugatuta dago kargak manipulatzeko eta desgaitasuna duten pertsonentzat. Kasu horietan, **pertsona bakarra sartuko da bidaiari bakoitzean.**
 - **Atetik 1,5 metrora** egon behar duzu igogailuaren zain .
 - Igogailuan nahitaezkoa da **maskara** erabiltzea



FAKULTATEAREN BARRUAN

- **Komunen** okupazioa edukieraren % 50ekoa izango da.
 - **Eduki kanpoko atea beti irekita**, okupazioa jakiteko.
 - **Garbitu eskuak** sartzetakoan eta irteterakoan, eta **ez ukitu gainazalak beharrik gabe**.
- **Espazio guztiak (ikasgelak, bulegoak, laborategiak, korridoreak) ondo aireztatzen direla** bermatu beharko da.
- **EZIN da Fakultatean jan**.
- **EZIN da korridoreetan eta ikasteko guneeetan bildu**.
- Armairuak **ITXITA** egongo dira, eta, beraz, **ezingo dira erabili**.



BABES NEURRIAK GELA BARRUAN

- **Nahitaezkoa da maskara erabiltzea gela barruan zein kanpoan.**
- **Ikasleak** gel hidroalkoholikoarekin **garbituko ditu eskuak** gelara sartzean eta handik irtetean.
- **Gelaren barruan**, gutxienez 1,5 metroko tarte utziko da pertsonen artean eta behar bezala seinaleztatuta egongo da.
- **Ikasgelara ordenan sartu eta aterako da, gutxieneko distantzia** arauak errespetatuz.
- Ikasgelen okupazioa ez da **gela bakoitzeko 50 pertsona** baino gehiagokoa izango, edo **ohiko edukieraren % 50** baino gehiagokoa.
- Ikasle bakoitza, ahal dela, leku berean eseriko da egunero.
- Garbiketako kit bat izango da leku horiek desinfektatzeko, beste ikasle batzuek bete behar badituzte.
- **Gela aireztatuta mantenduko da**; horretarako, leihoak irekiko dira eskolen arteko atsedendietan (gela bakoitzeko arduradun bat izendatuko da neurri horiek zaintzeko).
- **Saihestu egingo da beste ikasle batzuen objektuak, ekipoak edo gailuak erabiltzea** (arkatzak, telefonoak, ekipo informatikoak, laborategiko ekipoak, etab.).



BABES NEURRIAK GELA BARRUAN

- **IRAKASLEEK** gel hidroalkoholikoarekin **desinfektatu** beharko dute **eskolak emateko erabiltzen duten material guztia**, bai ikasgelaren **sarreran**, bai **irteeran**.
- Irakasleei gomendatzen zaie **eskularruak erabiltzea** eskolak emateko.
- Ikasleren batek **irakasleari kontsultaren bat** egiten badio, **ozenki** galdetuko dio; irakasleak harengana joan behar badu, **segurtasun distantzia** mantenduko da.
- **Maskara behar bezala jartzea** funtsezkoa da agente biologikoaren Sarrera bideak saihesteko. Era berean, garrantzitsua da **behar bezala kentzea**, kutsatutako eremuekin kontakturik ez izateko.
- Ikasle edo irakasleren batek COVID-19rekin lotutako sintomak baditu eskolan/praktikan zehar, berehala utziko du espazioa. Ondoren, prebentzio zerbitzuari jakinaraziko zaio, kontaktu estuen balizko azterketa egin dezan.



BABES NEURRIAK IRAKASKUNTZA LABORATEGIETAN

- **Ikasleak** gel hidroalkoholikoarekin **garbituko ditu eskuak** laborategira sartzean eta handik irtetean.
- Laborategian nahiz laborategitik kanpo, **maskara erabili behar da, salbu eta praktikaren garapenak ez badu gomendatzen.**
- **Laborategiko sarrera eta irteera ordenan** egingo dira, **gutxieneko distantzia** arauak errespetatuz.
- Ikasgeletan bezala, **laborategien barruan** ere gutxienez 1,5 metroko tarteak utziko da une oro pertsonen artean.
- **Laborategia ondo aireztatuta mantenduko da;** horretarako, leihoak irekiko dira praktiken arteko atsedenaldietan.



BABES NEURRIAK IRAKASKUNTZA LABORATEGIETAN

- Praktikak 1 m-tik beherako distantziak eskatzen baditu (binakako zuzeneko lana, zuzeneko kontaktua), ahal dela bikote berarekin egin beharko da.
- Gela normalak erabili ahal izango dira prestakuntza saioetarako.
- Normalean gauzak sartzea debekatzen den laborategietan (motxilak, ...), horiek gordetzeko gela txiki bat gaitzen saiatuko da.
- Gure irakaskuntza laborategietan egiten diren praktiken artean desberdintasunak daudenez, nahiz eta Gradu berekoak izan, **irakasle talde bakoitzak segurtasun eta garbiketa neurri gehigarriak ezarriko ditu**, praktika horiek behar bezala egiten direla bermatzeko.